



Irakurri eta sortu DBHn



Baliabideen Bilduma

Ana Moreno Peinado
DBH-Gaztelania
Irale-Eibar
2017-2018
2. txanda

Irakurri eta sortu DBHn

Baliabideen Bilduma

1. JUSTIFIKAZIOA
2. ZER DA IRAKURKETA?
3. HELBURUA
4. EKINTZAK

4.A. IRAKURRI

4.A.1. IKASTEKO IRAKURRI

4.A.1.1. Ikasteko urratsak. Testu-bilduma osatu

4.A.1.2. Literatura-tertulia dialogikoa eratu

4.A.2. GOZATZEKO IRAKURRI: IRAKURZALETASUNA

4.A.2.1. Irakurmetroa antolatu

4.A.2.2. Booktube-a egin (booktuber aritu)

4.A.2.3. Irratiko irakurle-kluba elikatu

4.A.2.4. Iruzkina idatzi gelako Blog-ean / Padlet-ean

4.A.2.5. Egun bereziak ospatu

4.A.2.6. Liburutegia dinamizatu

4.A.2.7. Beste hainbat jarduera antolatu

4.B. SORTU ETA ADIERAZI

4.B.1. Booktrailer-a egin

4.B.2. Istorioa aldatu

4.B.3. Literatura unibertsaleko pertsonaia aurkeztu

4.B.4. “Liburutik zinemara, zinematik liburura” proiektua

4.B.5. Era askotako testuak ekoitzi

5. BIBLIOGRAFIA

Irakurri eta sortu DBHn

Baliabideen Bilduma

“Informazioaren eta komunikazioaren gizartean, ezinbestekoa da irakurtzeko gaitasuna egoki garatzea”

1. JUSTIFIKAZIOA

Denok dakigunez, egun, ezinbestekoa da irakurle gaitua izatea heziketa integrala lortzeko, hau da, garapen pertsonala zein profesionala eskuratzeko. Zergatik dauka, bada, irakurketak hainbesteko garrantzia? Besteak beste, honako arrazoi hauengatik: irudimena eta pentsaera abstraktua suspertzen du, ezagutzak eskuratzeko bide nagusia da, lexikoa zabaltzeko, gogoeta egiteko eta aisialdiaz gozatzeko tresna ezin hobea da, eta, horretaz gain, ezinbestekoa da ikasteko eta eskolan emaitza ona lortzeko.

Hala, lehenetsuneko lan-esparrua bilakatu da irakurketa eskolan: ulermenezko irakurketa lantzeko orientabideak jaso dira Derrigorrezko Hezkuntzaren Curriculumean, eta, aurtendik aurrera, Irakurketa-Plana idatzi beharko dute ikastetxeek. Nola ez aipatu Hezkuntza Sailaren Irakurgunea web-orria?

Lan honetan, hainbat estrategia jaso dira irakurtzen ikasteko, irakurtzera zaletzeko, besteei istorioak kontatzeak dakarren gozamenaz jabetzeko eta kontakizunak sortzeko. Ezin da ahaztu, bestalde, informazio- eta komunikazio-teknologiaren eragina gaurko gizartean; horregatik, IKTak bidelagun izango dira, ezinbestean, irakurketaren inguruan ikasgelan egindako edozein ekintzatan eta jardueratan.

2. ZER DA IRAKURKETA?

Honela definitzen du irakurtzeko gaitasuna PISA 2009ko Irakurketa Markoak: “(...) helburu pertsonalak erdiesteko, norberaren aukerak eta ezagutzak garatzeko, eta,

gizartean parte hartzeko xedeekin, irakurleak testu idatziak ulertzeko, erabiltzeko, haietaz gogoeta egiteko eta haiekin konprometitzeko duen gaitasuna da”.¹

Gogoan izan behar da testu idatziak, gaur egun, era askotakoak direla: paperezkoak eta digitalak, jarraituak (informazioa esaldi eta paragrafo jarraituetan daukate antolatuta) eta ez-jarraituak (zerrendak, formularioak, grafikoak, diagramak...), multimodalak (hitzak eta irudiak konbinatuta)...

3. HELBURUA

Xede nagusia da ikasleen irakurtzeko gaitasuna hobetzea eta garatzea Derrigorrezko Hezkuntzan. Hori lortzeko, honako arlo hauek landuko dira proiektu honetan: ulermena, gogoeta, adierazpena eta sormena. Horrenbestez, irakurketaren inguruko lanketa hiru ardatz nagusi hauen inguruan egituratu da:

- **IKASTEKO IRAKURRI.** Ikasleak gai izan behar du irakurritako informazioa ulertzeko eta eskuratzeko. Besteak beste, hauek dira xedeak:
 - a. Irakurketaren ulermen osoa hobetzea.
 - b. Testu moten ezaugarriak ezagutzea.
 - c. Iritzi kritikoa osatzea.

- **GOZATZEKO IRAKURRI: IRAKURZALETASUNA.** Ikasleak gai izan behar du aisialdian atsegina emango dion irakurketa-ohitura hartzeko. Besteak beste, hauek dira xedeak:
 - d. Ikastetxeko liburutegia dinamizatzea.
 - e. Irakurtzeko gogoia piztea eta ohitura bihurtzea.

- **ADIERAZPENA ETA SORMENA.** Ikasleak gai izan behar du ahozko zein idatzizko komunikazioa hobetzeko, eta sormena, irudimena eta fantasia sustatzeko.

¹http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_lenguas/ad_juntos/500011e_Pub_BGN_irakurketa_BH.pdf

4. EKINTZAK

4.A. IRAKURRI

4.A.1. IKASTEKO IRAKURRI

Irakurtzeko gaitasunaren maila oso lotuta dago porrotarekin edo arrakastarekin. Ildo horretatik, ikasle guztiek izan behar dute irakurle gaituak. Baina, zer da **IRAKURLE GAITUA (KONPETENTEA)** izatea? “Ikasleak askotariko testuak, askotariko formatuetan irakurtzeko gauza izatea eta informazio espezifikoa eskuratzeaz gain, zentzu orokorra antzematea, testuaren gaineko inferentziak egitea, eta edukia eta forma modu kritikoan aztertzeko gauza izatea”.²



4.A.1.1. IKASTEKO URRATSAK. TESTU-BILDUMA OSATU

IKASTEKO URRATSAK. Irakurketaren hiru urratsei³ lotutako estrategiak landu, eta eskuratu behar dira:

1. IRAKURRI AURRETIK	2. IRAKURRI BITARTEAN	3. IRAKURRI ONDOREN
<p>Helburu jakinarekin irakurtzea.</p> <p>Aurretiko ezagutzak abian jartzea.</p> <p>Iragarpenak eta hipotesiak egitea.</p>	<p>Idea nagusiak identifikatzea.</p> <p>Ideiak eta kontzeptuak erlazionatzea (ondorioztatzea).</p> <p>Irakurritakoari buruz galderak egitea.</p> <p>Ziurtatzea testua ulertu dela; zailtasunak identifikatzea.</p> <p>Atalen edukia laburbilduz joatea</p>	<p>Irakurmenaren inguruko galderak erantzutea.</p> <p>Irakurritakoa laburtzea; buru-mapa edo eskema egitea; azpimarratzea.</p> <p>Egiaztatzea helburua lortu dela.</p> <p>Irakurritakoa baloratzea; ezagutza berriak identifikatzea.</p>

²<https://ikasgunea.hezkuntza.net/eu/web/plan-lector/ikasteko-irakurri>

³<https://sites.google.com/a/berrilasarte.eus/irakurketa-ikastetxean/ikasteko-irakurri>

TESTU-BILDUMA. Ikastetxeko mintegi bakoitzak bere ikasgairi dagokion testu-bilduma atondu beharko du. Bilduma horretan, era askotako testuak jasoko dira. Testuak aukeratzeko irizpideak hauexek dira:

- ❑ Testu-tipoa: narrazioa, azalpena, argudioa...
- ❑ Testu-generoa: albistea, kontakizuna, eleberria, biografia, artikulua, erreportajea...
- ❑ Erabilpen-eremua: hedabideak, literatura-arloa...
- ❑ Testu jarraitua edo ez-jarraitua izatea: mapa, grafikoa...

Ahal dela, ikasleen intereseko testuak hautatuko dira, eta haien ezagutza-mailarentzako egokiak direnak.

4.A.1.2. LITERATURA-TERTULIA DIALOGIKOA ERATU

Irakurtzeak aukera ematen du norberaren buruarekin gogoeta egiteko. Halaber, irakurritakoaren inguruko ideiak, emozioak, iritziak, sentimenduak eta sentsazioak beste batzuekin partekatzeko aukera eskaintzen du. Gogoeta eta interpretazio anitz azaleratzen dira, eta aberastu egiten dute testuaren zentzua.

Horren haritik, Bartzelonako Unibertsitateko Soziologia-katedradun Ramon Flechak hauxe dio: "Tertulian, bizitzaz eta literaturaz ikasten dugu, elkarrekin hitz egiten dugun bitartean".⁴

XEDEA: Testuari buruzko hausnarketa eta ulermena sustatzea ikasle guztien artean.

JARRAIBIDEAK: Ikasleek aurrez adostutako orrialdeak irakurriko dituzte liburutik, etxean edo eskolan. Gainera, irakurri ahala, paragrafo (edo ideia) esanguratsuak jasoko dituzte tertulia-koadernoan, deigarri egin zaizkienak, ulertu ez dituztenak edota haien bizitzarekin zerikusia dutenak... Ikasleek ikaskide guztiekin partekatuko dituzte koadernoetan idatzitako ideiak. Denek izango dute aukera hitz egiteko; baita beste ikasleek esan dutena entzuteko eta eztabaidan parte hartzeko ere.

⁴ <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20120601/literatura-klasikoa-ikasleen-eskura>


4.A.2. GOZATZEKO IRAKURRI: IRAKURZALETASUNA

4.A.2.1. IRAKURMETROA ANTOLATU

XEDEA: Ikasleak ahalik eta gehien irakurtzea eta, aurkezpenen bidez, irakurzaletasuna sustatzea ikaskideen artean. Jarduera atsegina izan dadin, ikasleak berak erabakiko du zer liburu irakurri, askatasunez.

JARRAIBIDEAK

1. Eduki liburutegian hainbat irakurgai eskura.
2. Aukeratu liburu bat ebaluazioko, nork bere interesa, zaletasuna eta irakurketa-maila aintzat hartuta.
3. Bete fitxa irakurritakoan, eta aurkeztu ikasgelan, edozein egunetan.
4. Idatzi izenburua paperezko euskarrian, apaindu, eta ipini apalean.
5. Begiratu Irakurmetroari ebaluazio bakoitzean.



4.A.2.2. BOOKTUBE-A EGIN (BOOKTUBER ARITU)



XEDEA: Gure gustuko liburua gogo biziz aurkeztea.

JARRAIBIDEAK

1. Ikusi [adibide](#) batzuk.
2. Aurkeztu bideo entretenigarria eta erakargarria; zeuk erabaki nola egin aurkezpena.
3. Erreparatu edukiari: egilea, bilduma, generoa, gaia, argumentua, pertsonaiak, idazkera, iritzi pertsonala...
4. Gogoratu ezin dela irakurri.
5. Zaindu iraupena (bi minutu).

4.A.2.3. IRRATIKO IRAKURLE-KLUBA ELIKATU

XEDEA: Audioa grabatzea irakurritako liburuari buruz; borondatezko lana da.

JARRAIBIDEAK

1. Ikusi [adibide](#) batzuk.
2. Sartu honako atal hauek:
 - 2.a. Egin ikaslearen aurkezpena: izena (abizenik gabe) eta gela.
 - 2.b. Aipatu liburuaren datu bibliografikoak: izenburua, autorea, argitaletxea eta orrialde kopurua.
 - 2.c. Egin liburuaren iruzkina: deskribatu interesa sortu dizun pertsonaiaren bat edo aipatu ikasi duzun zerbait, betiere liburuaren arabera. Adierazi liburu gomendagarria den ala ez, eta ez ahaztu ondo argudiatzea.
3. Bidali grabaketa irakasleari emailaz, IVOOXen jartzeko; argitaratu zeure blogean.
4. Zaindu iraupena (minutu eta erdi).

4.A.2.4. IRUZKINA IDATZI GELAKO BLOGEAN / PADLET-EAN

XEDEA: Iritzia idaztea (5-6 lerro) gelako Blogean / Padletean, irakurle-kluba atalean.

JARRAIBIDEAK

1. Ikusi [adibide](#) batzuk.
2. Sartu honako atal hauek:
 - 2.a. Egin aurkezpena: idatzi gela-zenbakia eta izen-abizenen lehenengo hizkiak (2B-ANK).
 - 2.b. Egin liburuaren iruzkina: deskribatu interesa sortu dizun pertsonaiaren bat edo aipatu ikasi duzun zerbait, betiere liburuaren arabera. Adierazi liburu gomendagarria den ala ez, eta ez ahaztu ondo argudiatzea. Ikusi adibidea (La estantería #Educalguales):



4.A.2.5. EGUN BEREZIAK OSPATU

📖 POESIAREN NAZIOARTEKO EGUNA (MARTXOAREN 21a)

Hunkitu gaituzten poesien esekitokia.

Kartoiarekin egindako jantzietan idatziko dira olerki (bertso) hunkigarriak, eta Poesia Hunkigarrien Esekitokian zintzilikatuko dira.

XEDEA: Olerki (bertso) hunkigarriak aukeratzea (edo asmatzea), kartoiarekin egindako jantzietan idaztea (edozein diseinu erabilita) eta Poesia Hunkigarrien Esekitokian zintzilikatzea.

JARRAIBIDEAK

1. Ikusi adibideak: (<https://hautatzen.net/dia-del-libro-2016/>)
2. Aukeratu (edo asmatu) hunkitu gaituen olerkia (bertsoa).
3. Pentsatu diseinua, eta egin zirriborroa.
4. Margotu koloretako kartoi mehean, eta moztu.
5. Irakurri ozenki, eta zintzilikatu Poesia Hunkigarrien Esekitokian.



📖 LIBURUAREN EGUNA (APIRILAREN 23a)

Honako ekintza hauek aurreikusi dira:

1. Lemak erabiltzea, irakurketa bultzatzeko.
(<https://www.pinterest.es/lourdesdomenech/lemaslectura/>)
2. #Videotwit-a sortzea: <http://conocity.eu/hacer-un-videotwit/>
3. Mikronarrazioa egitea.
4. Testu klasiko bat moldatzea, WhatsApp-eko baliabideak bitarteko.
(<https://hautatzen.net/dia-del-libro-2016/>)



5. Liburuetako pertsonaien bilduma egitea.

4.A.2.6. LIBURUTEGIA DINAMIZATU

Liburutegiko funtsak katalogatu eta ordenatu behar dira, baita ikasleentzako irakurketa-gida egokiak prestatu ere. Liburuak aukeratzean, aintzat hartuko dira, ezinbestean, ikasleen interesa, zaletasuna eta irakurketa-maila...

Liburutegiko baliabideak eta guneak erabiltzeko, protokolo bateratua adostu behar da, bai liburuak mailegatzeko, bai liburutegiko guneak erabiltzeko, bai erabiltzaileen jokabideak arautzeko...

4.A.2.7. BESTE HAINBAT JARDUERA ANTOLATU

Beste hainbat jarduera ere antola daitezke ikastetxean, irakurzaletasuna pizteko:

- Olerki- eta narrazio-lehiaketa.
- Sortzaileekiko topaketak (idazlea eta/edo ilustratzailea).
- Ipuin-kontalarien saioa.
- Irakurketa ozena.
- Literatura-lemak erabiltzea.
- Egunkariekin lan egitea ikasgelan.
- Aldizkari monografikoa idaztea ikasleen lanekin, ikasleentzat.
- Irakurketa prestatzeko saioak egitea, familiekin.
- Maleta ibiltaria egitasmoan parte hartzea.
- Ibilbide Literarioak programan parte hartzea.
- Hainbat liburutegi bisitatzea.
- ...

4.B. SORTU ETA ADIERAZI

Testuak behar bezala ulertzea da hizkuntzaren eta literaturaren i(ra)kaskuntzaren helburuetako bat. Horrekin batera, testuak ekoizten jakitea ere garrantzitsua da. Eta, jakina, gozatu ere egin behar da irakurketarekin.

Komeni da gogoratzea idazketak eta irakurketak badutela, nolabait, lotura elkarren artean. Izan ere, irakurri egiten da idazteko, idatzi egiten da irakurritakoa hobeto ulertzeko, irakurri egiten da irakurritakoaz mintzatzeko besteekin, idatzi egiten da ahozko azalpenak prestatzeko...

4.B.1. BOOKTRAILER-A EGIN

XEDEA: Bideoa sortzea liburu bat iragartzeko; horretarako, filmen trailerrak sortzeko narrazio-teknikak erabiliko dira.

JARRAIBIDEAK

1. Ikusi [adibide](#) batzuk.
3. Erabili honako baliabide hauek: liburua, irudiak, testua, ahotsa eta musika.
4. Hautatu liburua.
5. Gogoratu gertakaririk interesgarrienak, eta jaso booktrailerrean.
6. Idatzi gidoia.
7. Ez ahaztu liburuaren datu bibliografikoak eranstea bideoari:
 - Idazlea, ilustratzailea eta itzultzailea.
 - Izenburua.
 - Azalaren irudia.
7. Sortu edo aurkitu irudiak: argazkiak, marrazkiak, ilustrazioak, bideoak...
Creative Commons erabil daiteke: [hemen](#).
8. Sortu edo aurkitu musika. Musika librea har daiteke: [Jamendo](#), [CCMixer](#), [Danosongs](#).
9. Aipatu erabilitako iturria, bai irudietan, bai musikan.
10. Idatzi egileen izena kredituetan.
11. Erabili argazki- edo bideo-ediziorako programak:
 - Software librekoak: [Kdenlive](#), [PiTiVi](#), [Cinelerra](#), [Open Movie Editor](#).
 - Komertzialak: [Microsoft Power Point](#), [Windows Movie Maker](#), [Picasa](#), [Pinnacle Studio](#), [Microsoft Photo Story](#), [Adobe Premiere Elements 9.0](#).

[Animoto, Photo Slideshow Creator, Photodex, Corel, Pictures To Exe, Photo to Movie, Photo DVD, Prezi.](#)

12. Erregistratu Youtuben, eta igo bideoa.

Formatuak dira: .MOV, .MPEG4, .AVI, .WMV, .MPEGPS, .FLV3GPP, .WebM.

4.B.2. ISTORIOA ALDATU

XEDEA: istorio bera kontatzea baina genero- edo estilo-aldaketa eginda. Esate baterako, eleberria antzerki bihurtu, dialogoa artikulua... Adibide batzuk:

- **IDAZLE KLASIKOAK KALEAN egitasmoa**: idazle klasikoaren testua kaleko hizkuntzara moldatzea.
- **QUIJOTE NEWS egitasmoa**: aurrez aukeratutako testuak irakurtzea eta edukia moldatzea artikulua bat idazteko.
- **KONTAIDAZU BERRIRO egitasmoa**: istorio bera kontatzea beste ikuspuntu batetik, Queneau-ren *Estilo-ariketak* liburua bidelagun.

4.B.3. LITERATURA UNIBERTSALEKO PERTSONAIA AURKEZTU

XEDEA: Literatura unibertsaleko pertsonaien bilduma egitea eta aurkeztea. Ikasleek, edozein arrazoi edo sentimendu tarteko, gogoko dituzten pertsonaiekin egingo da bilduma hori. Esaterako:

Txanogorritxo, Erpurutxo, Hansel eta Gretel, Ahatetxo Itsusia, Kixote Mantxakoa, Santxo Pantza, Errauskine, Otxoa, Bizarrurdin, Pinotxo, Lamiatxoa, Simbad marinela, Edurnezuri, Ogro, Perez sagua, Robinson Crusoe, Gulliver, Katu Botaduna, Peter Pan, Aladino, Hiru Txerritxoak, Itsumutila, Sandokan, Pocahontas, Sissi, Ali Baba, Romeo eta Julieta, Fortunata eta Jazinta, D`Artagnan, Phileas Fogg.

JARRAIBIDEAK

1. Ikusi [adibide](#) batzuk.
2. Aukeratu pertsonaia.
3. Irakurri aukeratu den pertsonaia protagonista den kontakizuna.
4. Erantzun galdera hauei: Nolakoak dira? Zer dute? Zer egiten dute?...
5. Deskribatu pertsonaiaren izaera 1. pertsonan.
6. Idatzi aurkezpena, eta ikasi buruz.

4.B.4. “LIBURUTIK ZINEMARA, ZINEMATIK LIBURURA” PROIEKTUA

Lotura handia dago zinemaren eta literaturaren artean: batzuetan, literaturatik abiatuta sortzen dira pelikulak; beste batzuetan, alderantziz egiten da. Gaur egungo gizartean, ikus-entzunezkoek gero eta garrantzi handiagoa hartu dute, eta, hortaz, ezinbestekoa da hezkuntzan ere zinematografia-hizkuntza txertatzea.

XEDEA: Literatura-testua eta haren zinematografia-egokitzapena erkatzea; adibidez, *Romeo eta Julieta* liburua eta *Shakespeare in Love* filma.

JARRAIBIDEAK

1. Aukeratu liburu bat.
2. Irakurri etxean liburuaren atalak, eta ikusi gelan pelikularen zatiak.
3. Egin liburuaren eta filmaren azterketa konparatua taldetan.
4. Prestatu gai bat talde bakoitzak, eta aurkeztu gelan: isabeldar antzerkia, Shakespeare-ren antzerkia, pertsonaiak, idazle garaikideak...
5. Aurkeztu talde handian, partekatu emaitzak, eta eztabaidatu.

4.B.5. ERA ASKOTAKO TESTUAK EKOITZI

4.B.5.1. ISTORIO ÑIMIÑOAK: MIKRONARRAZIO LEHIAKETA

Narrazioa sortu behar da, hasierako esaldi hau abiapuntu hartuta: “Hondartzara jaitsi naiz, eta, egia esan, mundu guztiak begiratzen zidala iruditu zait, zergatik ote?”. Gaia librea da. Lanak, gehienez, 150 hitz izango ditu.

4.B.5.2. IRUDITIK NARRAZIORA

Irudi esanguratsu batetik abiatu, eta kontakizuna asmatu behar da. Horretarako, lehendabizi, galdera hauei erantzungo zaie: zer pertsonaia agertzen dira? Zein da gatazka nagusia? Non eta noiz gertatuko da? Nor izango da narratzailea?...

4.B.5.3. HOTS-BANDATIK NARRAZIORA

Hots-banda batekin edo doinu batekin hasi, eta istorioa idatziko da. Horretarako, lehenengo, galdera hauek erantzun behar dira: Zer pertsonaia agertzen dira? Zein da gatazka nagusia? Non eta noiz gertatuko da? Nor izango da narratzailea?...

4.B.5.4. BESTE KONTAKIZUN BAT IZKIRIATU

Hainbat esaera zahar kateatuko dira, beste esanahi batzuk aurkitzeko. Esaera zaharrok kateatu ondoren, beste kontakizun bat idatziko da.

4.B.5.5. OROITZAPENETAN MURGILDUTA

Oroitzapenetan murgildu, eta kontaera sortuko da. Ikasleak objektu bat aterako du irakasleak emandako poltsatik, gogora ekartzen dion oroitzapenean murgildu, zerrenda egin, eta kontaera gauzatuko du.

4.B.5.6. BUKAERA ALDATU

Bukaera aldatuko zaio testuari. Ikasleek, binaka, beste bukaera bat emango diote narrazioari; gero, ozenki irakurriko dute talde handian. Ezin da ahaztu, askotan, ez zaigula gustatzen idazleak berak idatzitako testuaren amaiera.

4.B.5.7. POSTERRA EDO ORRIALDE-MARKATZAILEA DISEINATU

Posterra edo orrialde-markatzailea diseinatuko da esaldi eta irudi esanguratsuekin, gela apaintzeko. Ikusi adibidea:

<https://lengcreativ.wordpress.com/lectura/811-2/>



5. BIBLIOGRAFIA

http://www.fliedner.es/media/modules/editor/juandevaldes/docs_v2/proyecto_educativo/plan-lector-eso-15-16.pdf

<https://irakurgune.hezkuntza.net/eu/inicio>

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_lenguas/adjuntos/500011e_Pub_BGN_irakurketa_BH.pdf

<http://www.galtzagorri.org/euskara>

<http://kalabazan.com/nola-egin-2/>

<http://leer.es>

http://dpto.educacion.navarra.es/planlectura/planlecturaiesjeronimo_files/Plan_de_lectura-eus2.pdf

<https://www.educacion.navarra.es/documents/713364/714655/elplandelecturaeusk.pdf/3e8109e9-b065-4975-98c8-7fc6b7cd92dc>

<http://www.biblogtecarios.es/isabelborruel/plan-de-fomento-de-la-lectura-actividades/>

<http://compresion-lectora.org/>

http://nagusia.berritzeguneak.net/gaitasun/docs/planesmejora/hobekuntzaplanado_khizk.pdf

<http://www.juntadeandalucia.es/educacion/webportal/ishare-servlet/content/da954aa2-e07e-489d-ab74-fd105d7b1744>